

- KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko.

Hasteko, gure enpresak gastuak izango ditu marketing-ean. Gure produktuak lehenik eta behin egunkarian argitaratuko ditugu, horrela bezero berriak erakarriko ditugu modu tradizional batean eta ahoz aho egingo da ezaguna. Bestetik, bizimodua gero eta modernizatuagoa dagoenez, Instagram eta Twitter kontuak egingo ditugu; honen bidez, gazteak erakarriko ditugu eta haien artean bidaliz ezaguna egingo da(kontu hauek irekitzeko ez dugu inolako dirurik gastatuko, gu geuk egingo ditugu). Beste aldetik, gure produktuen kartelak egingo ditugu eta gure herrian zehar itsatsiko ditugu hormetan eta iragarki-tauletan (ez dugu inor kontratatuko kartelak itsasteko, guk jarriko ditugu eta horrela bakarrik gastatuko dugu dirua karteletan) .



Gure enpresa aurrera eramateko langileak behar ditugu. Negozioa interneten bidez hasiko dugu eta produktuen kantitate txikiak ekoiztuko ditugu. Lehenik, informatikoak kontratatuko ditugu online denda, chip-en aplikazioa sortzen diren arazoak konpontzeko eta chip-ak sortzeko. Aldi berean haiek kontrolatuko dituzte gure salmentak eta online dendan zerbait berria saldu behar dugunean haiek igoko dute. Bigarrenik, langileak kontratuko ditugu gure produktuetan chip-ak sartzeko eta instalatzeko. Gure irabazien %35a langileak ordaintzeko erabiliko dugu eta %6a Unicef ONG-ari emango diegu. Gainera, lokala alokatu behar dugu gure langileak gustura lan egiteko eta gure enpresa aurrera joateko.

Azkenik, chip-en materialean eta makinarian dirua gastatuko dugu, chip-ak sortzeko eta ongi funtzionatzeko.



